

# Getxo >MEETING<



## **Azaroak 21** **Zure zerbitzuak zabaldu gehiago kobratzeko**

Zer gertatu zen Getxo Meetingen egin genuen azken saioan?

Azaroaren 21ean, Getxo Itsas Huben bildu ginen gure zerbitzuen bilakaera aztertzeko, ideia berriak sortzeko eta gure bezeroei balio handiagoa emateko. Sormena, ikusi genuen bezala, aldez aurretik isolatutako ideiak konektatzean sortzen da, eta horrek aukeren mundua irekitzen du.

Saioan zehar:

- Kobratu gabe egiten duzunari balioa nola eman identifikatu genuen, zerbitzu berria bihurtzeko.
- Zurearen mugakide diren sektoreak aztertu genituen, aliantza estrategikoak sortzeko aukerak bilatuz.
- Zure ibilbide profesionalean zehar beste arlo batzuetan lortutako esperientzia berreskuratu genuen, formula berrietan aplikatzeko.

**Ekonomia-Sustapena / Promoción económica**  
**Getxo Elkartegia, Ogoño 1, 48930 Getxo (Bizkaia) 944660140**  
**getxolan@getxo.eus • [www.getxo.eus/promocion-economica/](http://www.getxo.eus/promocion-economica/)**

Jarrai gaitzazu: /Síguenos en:



Dinamika horiei esker, dibertsifikatu edo espezializatu egin zaitezke, zure strategiaren arabera, betiere gehiago kobratzea justifikatzen duen zerbait sortzera bideratuta, dela premiagatik, dela eskaintzen duzun kalitateagatik edo arreta pertsonalizatuagatik. Eta batzuetan zure zerbitzuak berrizendatzeko eta esklusiboagoak bihurtzeko balio du.

Partaide bakoitzak ideia berriak hartu zituen, ikuspegi berri batetik bere negozioari bira bat emateko moduari buruz. Izan ere, desberdin pentsatzea, baina zentzu praktikoz, funtsezkoa da bezero hobek izateko eta merkatuan bereizteko.

Saio hau galdu zenuen? Ez kezkatu, topaketa gehiago egongo dira esploratzen eta hazten jarraitzeko.

Ekonomia-Sustapena / Promoción económica  
Getxo Elkartegia, Ogoño 1, 48930 Getxo (Bizkaia) 944660140  
getxolan@getxo.eus • [www.getxo.eus/promocion-economica/](http://www.getxo.eus/promocion-economica/)

Jarrai gaitzazu: /Síguenos en:

